

OSOKO BILKURA

HERNANIKO UDALAK 2026KO URTARRILAREN 27AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

ALKATEA:

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra

ALKATEORDEAK:

*Itsaso Lekuona Legorburu
Patxi Ibarguren Etxeberria
Ainara Atorrasagasti Urizar
Aitor Lukas Solano*

ZINEGOTZIAK:

*Axier Mingo Arruabarrena
Amaia Miñer Canflanca
Aitor Huizi Izagirre
Urko Lazkoz Fernandes
Oier Agirresarobe Lizaso
Kistiñe Rodríguez Polaina
Andoni Amonarraiz Gómez
José Antonio Cuesta Solé
Blanca Alberro Aranzasti
Miryam Vázquez Vecino
Mikel Gurutzeaga Zubillaga
Ismael Ganchequi Gonzalez
Ricardo Crespo Rubio
Maria Jesus Ruiz Ochoa
Jaione Aristregi Cao
Lurdes López Gorrotxategi*

IDAZKARIA:

Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa

KONTU-HARTZAILEA:

Aitor Sarasola Salaberria

2026eko urtarrilak 27an osoko bilkura egin da udaletxean, arratsaldeko 18:00etan, aurrez deialdia egin zegoelarik. Bileran Xabier Lertxundi Asteasuinzarra alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako zinegotziak eta neu, Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa idazkaria.

Gai zerrenda:

1. OSOKO BILKURAKO AKTAK ONARTZEA

-2025-11-25EKO OSOKO 10-2025 AKTA

-2025-12-02KO OSOKO 11-2025 AKTA

-2025-12-16KO OSOKO 12-2025 AKTA

2. DEKRETUEN BERRI EMATEA 2025DEKR2956 DEKRETUTIK 2026DEKR0115 DEKRETURA.

3. BERRI EMATEA. KONTUHARTZAILEAREN TXOSTENA: URTEKO AZKEN HIRUHILEKOARI DAGOKION AURREKONTU ALORREKO INFORMAZIOA.

4. HERNANIKO PARKE, LORATEGI ETA BERDEGUNEEN MANTENTZE JASANGARRIRAKO, KONTSERBAZIOKO ETA HOBEKUNTZA ZERBITZUAREN KONTRATUA ESLEITZEA

5. OIARTZUNGO UDALA GARBITANIAN SARTU AHAL IZATEKO, HERNANIKO UDALAK LEHENTASUNEZ EROSTEKO AUKERARI UKO EGITEA ETA ESTATUTUEN ALDAKETA EGITEA.

6. GALDERA ETA ESKARIAK

1. OSOKO BILKURAKO AKTAK ONARTZEA

-2025-11-25EKO OSOKO 10-2025 AKTA

-2025-12-02KO OSOKO 11-2025 AKTA

-2025-12-16KO OSOKO 12-2025 AKTA

Alkatea: Arratsalde on, seiak dira oraintxe eta 2026ko lehenengo osoko bilkurari hasiera emango diogu.

Lehenengo puntua ohikoa den bezala, aktak onartzea dugu. Kasu honetan, hiru osoko bilkuratako aktak dauzkagu: azaroan egin genuen ohiko deialdikoa eta abenduan egin genituen birena, biak ez-

ohiko deialdian egindakoak, abenduaren 2an eta 16an. Ez dakit aktekin zerbait aipatzeko badagoen... ez badago ezer, onartutzat emango ditugu.

2. DEKRETUEN BERRI EMATEA 2025DEKR2956 DEKRETUTIK 2026DEKR0115 DEKRETURA.

Alkatea: Bigarrena ere hilabetero ekartzen dugun puntua da, dekretuen berri ematea. Azken plenotik hona eman ditugun dekretuak 2025-2946 zenbakitik 2026-115 dekretu zenbakira. Zerrenda pasa zaizue. Ez dakit dekreturen baten inguruan galderarik, zalantzarik edo komentatzeko ezer ba ote dagoen. Ez badago ezer, berri ematea denez, aurrera.

3. BERRI EMATEA. KONTUHARTZAILEAREN TXOSTENA: URTEKO AZKEN HIRUHILEKOARI DAGOKION AURREKONTU ALORREKO INFORMAZIOA.

Alkatea:Hirugarren puntua bada berri emate bat eta aurrez aipatutako dekretuekin badu zerikusia. Hau da kontu-hartzaileak urteko azken hiruhilekoari egin dion ohiko txostena. Hemen informazioa ematen da Antolakuntza Batzordean ere aipatu genuen, bi dekreturen inguruan, nolabait ere aurrekontuan eta partidetan egindako mugimendu batzuen inguruan. Batetik, kreditu-gehikuntza bat egin zen Sandiusterrin lurra egokitzeko egiten ari garen obra horretarako, eta beste dekretu bat ere egin zen 2.946 zenbakidun dekretua, kreditu-transferentzia bat, 268.000 eurokoa, kreditu globaletik; agortuta zeuden partidetara egin ziren transferentzia desberdinak. Partida desberdinetara, esan bezala, baina orokorrean 268.000 euroko transferentzia. Kontu teknikoak dira gehiago, baina tira, legeak esaten duenez, berri ematen dugu hemen, Antolakuntza Batzordean kontu-hartzaileak berak zuzenean azaldu zuen eta ez dakit hemen, osoko bilkuran, galderarik edo komentariarik badagoen honen inguruan.

Ez badago ezer, berri ematea da eta aurrera egingo dugu.

OSOKO BILKURAN EGINDAKO BERRI EMATEA

Gipuzkoako toki erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 64 artikulua, eta Aurrekontua Gauzatzeko Arauak 19. artikuluan, xedatzen duten moduan, igarotako epealdiari dagokion finantza eta aurrekontuen arloko informazioaren berri ematen da.

Azken hiruhilekoan izandako aurrekontu aldaketak.

Erakundea	Dekretua	Kopurua €	Azalpena
Hernaniko Udala	2025/294 5	47.237,55	KREDITU GAIKUNTZA 2025-KALD-008 espedientea. Sandiusterrri aretoaren obra exekuzio espedienteari jarraipena.
Hernaniko Udala	2025/294 6	268.000,00	KREDITU TRANSFERENTZIA 2025-KALD-009 espedientea. Partidetan kreditua agortu izanaren ondorioz, Kreditu Globalaren bidez finantzatzen diren gastu handitze espedienteak.

Udal honetako Antolaketa batzordean ere berri ematea burutu zen 2026ko urtarrilaren 22an

4. HERNANIKO PARKE, LORATEGI ETA BERDEGUNEEN MANTENTZE JASANGARRIRAKO, KONTSERBAZIOKO ETA HOBEKUNTZA ZERBITZUAREN KONTRATUA ESLEITZEA

Alkatea: Laugarren puntua Hernaniko parke, lorategi eta berdeguneen mantentze jasangarrirako kontserbazioa eta hobekuntza zerbitzuaren kontratua esleitzea izango litzateke eta Urkok azalduko digu.

Urko Lazkoz: Kaixo, arratsalde on.

Esan bezala, ateratako kontratu proposamena erreserbatutako kontratua zen, enpresa bakarra aurkeztu zen kontratazio proposamen honetara eta hauxe bakarrik izan da izendatua 92'5 puntu aterata, Gureak Berdea S.L.U.ri esleitu zaion kontratua.

Esan beharra dago kontratu potolo xamarra dela, mantenuak ekarriko duela 914.299'20 eurotako balioa. Hiru zatitan banatuta dagoena. Alde batetik, parkeak, lorategiak, berdeguneak eta bidezuhaitzen mantentze jasangarria eta kontserbazioa urteko prezioa 839.763'20 eurotan dena; beste zati bat material suntsikorren eta lan berezien urteko prezioa 33.880 euro; eta beste zati bat parkeen, lorategien, berdeguneen eta bidezuhaitzien espazioak hobetzeko eta egokitzeko lanen urteko prezioa 40.656 eurotako.

Esan beharra dago kontratua bi urtetarako dela, baina hiru urte gehiago luzatu daitekeena: urte bat, gehi bat, gehi bat.

Alkatea: Eskerrik asko, Urko.

Ez dakit honen inguruan zer bait badagoen aipatzeko. Ez badago ezer, zuzenean bozketara pasako gara. Hernaniko parke, lorategi eta berdeguneen mantentze jasangarrirako mantentze eta kontserbaziorako kontratua Gureak Berdea S.L.U.ri esleitzearen aldeko botoak? **Aho-batez onartzen da.**

OSOKO BILKURAK HARTUTAKO ERABAKIA

Aztertu da Hernaniko parke, lorategi eta berdeguneen mantentze jasangarrirako, kontserbazioa eta hobekuntzako zerbitzua kontratatzeko espedientea; hori, prozedura ireki bidez izapidetu da.

Lizitazio epean proposamen bakarra aurkeztu da:

- GUREAK BERDEA, S.L.U (IFZ: B20502613)

Kontratazio Mahaiak 2025eko abenduaren 29ko bilkuran, lizitazioan onartutako aipatutako enpresaren proposamen teknikoen balorazio txostenaren berri eman zuen Herri-lanak saileko arduradunak, Klausula Administratibo Berezien Pleguko 8.1 atalean zehaztutako balio-judizio bidezko irizpideen arabera.

Kontratazio Mahaiak balorazio txostena onartu zuen eta GUREAK BERDEA, S.L.U (IFZ: B20502613) enpresaren aldeko esleipen proposamena egin zuen eskaintza bakarra zelako, eta Klausula Administratibo Berezien Pleguko 8.1 nahiz 8.2 ataletan zehaztutako irizpideak betetzend dituelako.

GUREAK BERDEA, S.L.U enpresak kontratua esleitzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztu du emandako epean.

Horiek horrela, Gobernu Batzarrak AHO BATEZ erabaki du

Lehena.- GUREAK BERDEA, S.L.U enpresari (IFZ: B20502613) esleitzea Hernaniko parke, lorategi eta berdeguneen mantentze jasangarrirako, kontserbazioko eta hobekuntzako zerbitzuak, honako baldintza hauetan:

Prezioa:

- Parkeak, lorategiak, berdeguneak eta bide-zuhaitzen mantentze-jasangarria eta kontserbazioa egiteko lanen urteko prezio itxia: 694.019,17 € (BEZ gabe) gehi 145.744,03 (BEZ % 21), guztira 839.763,20 € (BEZ barne).

- Material suntsikorren eta lan berezien urteko prezioa, eranskineko banakako prezioetatik abiatuta (kontsumoa zerbitzuaren beharren arabera izango da): urteko 28.000,00 € (BEZ gabe) gehi 5.880,00 € (BEZ % 21), guztira 33.880,00 €

- Parkeen, lorategien, berdeguneen eta bide-zuhaitzen espazioak hobetzeko eta egokitzeko lanen urteko prezioa, urteko prezioan sartuta ez daudenak, eranskineko banakako prezioetatik abiatuta (kontsumoa udalerraren beharretara eta aurrekontuaren arabera izango da): urteko 33.600,00 € (BEZ gabe), gehi 7.056,00 € (BEZ % 21), guztira 40.656,00 €

- Plegu teknikoaren arabera 4. eranskinean zerrendatutako ibilgailuen, makinaren eta erreminten balorazioa, hau da, aurreko kontratuari atxikitako eta bizitza baliagarria osatu dutenena.

Deskribapena	Marka	Modeloa	Erreferentzia edo matrikula	Erosketa data	Eskaintzen den prezioa
IBILGAILUA / VEHÍCULO	NISSAN	PRIMASTAR	9023-FVW	2007/09/13	2.050,00
BELARRA MOZTEKO TRAKTOREA	ISEKI	SXG-323H	E-6818-BGF	2014/01/31	110,00
BELARRA MOZTEKO MAKINA	HONDA	HRH 536	MXBU-8513038	2017/12/04	110,00
BELARRA MOZTEKO MAKINA	HONDA	HRH 536	MZBU-8513040	2017/12/04	110,00
BELARRA MOZTEKO MAKINA	HONDA	HRH 536	MZBU-8513041	2017/12/04	110,00
BELARRA MOZTEKO MAKINA	HONDA	HRH 536	MZBU-8513042	2017/12/04	110,00
HESKAIK MOZTEKOA	STIHL	HS 87 R	182299339	2017/12/04	110,00
HESKAIK MOZTEKOA	STIHL	HS 87 R	182299348	2017/12/04	110,00
MOTXILARAKO SASIGIDOIA GARBITZAILA	STIHL	FR 460 TC-EM	183728779	2017/12/04	110,00
MOTXILARAKO SASIGIDOIA GARBITZAILA	STIHL	FR 460 TC-EM	183728788	2017/12/04	110,00
MOTXILARAKO SASIGIDOIA GARBITZAILA / DESBROZADORA MOCHILA	STIHL	FR 460 TC-EM	183728791	2017/12/04	100,00
MOTXILARAKO SASIGIDOIA GARBITZAILA	STIHL	FR 460 TC-EM	183728796	2017/12/04	100,00
ALDAKAKO SASIGARBITZAILA	STIHL	FS 460 C-EM	183728797	2017/12/04	100,00
ALDAKAKO SASIGARBITZAILA	STIHL	FS 460 C-EM	183738682	2017/12/04	100,00
MOTOZERRA	STIHL	MS 201 TC-M	183982946	2017/12/04	100,00
BATERIADUN MOTOZERRA	STIHL	MSA 161 T	440340515	2020/01/21	100,00

HAIZE-MAKINA	STIHL	BR 700	508154918	2017/12/04	100,00
BATERIADUN HAIZE-MAKINA	STIHL	BGA 100	437848411	2017/12/04	100,00
INAUSTEKO GURAIZEAK	STIHL	ASA 85+	993012961	2017/12/04	80,00
INAUSTEKO GURAIZEAK	STIHL	ASA 85+	993007550	2017/12/04	80,00
				GUZTIRA	4.000,00

Gastua Udalaren aurrekontuko partida honen kontura kontabilizatuko da: 1 2310.227.99.171.00

Bestelako baldintzak:

- Eskaintzaren prezioaren barruan enpresak biodibertsitate-lorategi berriak sortzeko konpromisoa.

- Lizitazioa arautu duten Klausula Administratibo Berezien Pleguan eta Baldintza Teknikoen Agirian ezarritakoaren arabera beteko da.

Iraupena: bi urtekoa, beste hiru urtez luzagarria, urtez urte.

Bigarrena.- Esleipendunari eskatzea esleipena jakinarazten den biharamunetik kontatzen hasi eta hamabost laneguneko epea igaro ondorengo bost egunetan kontratua elektronikoki sinatu dezala.

Hirugarrena.- Alkateari edo haren legezko ordezkari administrazio-kontratua sinatzeko ahalmena ematea.

Laugarrena.- Kontratua gauzatzeko arduradun Herri-lanak Saileko arduraduna izendatzea.

Bosgarrena.- Erabaki hau Kontratatuzailearen Profilean argitaratzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 63.3 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

5. OIARTZUNGO UDALA GARBITANIAN SARTU AHAL IZATEKO, HERNANIKO UDALAK LEHENTASUNEZ EROSTEKO AUKERARI UKO EGITEA ETA ESTATUTUEN ALDAKETA EGITEA.

Alkatea: Bosgarren puntura pasako gara. Kasu honetan, Oiartzungo Udala Garbitanian sartu ahal izateko Hernaniko Udalak lehentasunez erosteko aukerari uko egitea eta estatutuen aldaketa egitea litzateke gaia. Ainarak azalduko digu.

Ainara Atorrasagasti: Kaixo, arratsalde on.

Oiartzungo Udalak Garbitania Zero Zabor sozietate publikoan bazkide moduan sartzeko eskaera egin digu, beraien poligonoetako hondakin bilketa egiteko. Horretarako, gaur egun bazkide garen Udalok, kasu honetan Hernaniko Udala, Usurbilgo Udala eta Astigarragako Udala, eskaera hori onartu egin behar dugu.

Beraz, hona erabakitzea ekarri duguna da berez Oiartzungo udalaren eskaera onartzea, bazkide berri gisa izendatzeko. Gero, sarreraren baldintza ekonomikoak zehazten dira, bai zenbateko ekarpen ekonomikoa egin behar duten eta zenbat partizipazio berri sortzen diren. Hernaniko Udalak lehentasunez daukan eros-eskubide horri uko egitea. Horrek eskatzen duen sozietatearen estatutuak aldatzea, txertatzeko bai Oiartzun bazkide gisa eta bai kapital sozial berri hau. Eta, honen ondorioz, aldatzen da baita ere bakoitzaren partaidetza portzentaia. Hau da, zenbat partizipazio kopuru duen herri bakoitzak.

Berez, Udalak mantentzen ditu bere partizipazioak, hori ez da aldatzen, eta partizipazio nominalak ere bai. Portzentaia bakarrik aldatzen da.

Orduan, horixe da dakarkiguna eta berez gure asmoa da Oiartzuni baiezkoa ematea.

Alkatea: Ez dakit honen inguruan zalantzarik badagoen...

Mikel Gurutzeaga: Bai, arratsalde on. Gure taldeko botoa kontrakoa izango da, batzordean bezala. Baina, aurretik, adierazi behar dugu erabaki hau hartzerakoan ez dugula izan eskuartean Udaleko kontu-hartzailearen txosten ekonomikorik. Non azertu daitekeen, adibidez, Hernaniko Udalarentzat zer kostu gehigarri ekar dezakeen erabaki honek.

Beharrezkoa ikusten dugu txosten ekonomiko hau egitea. Nahiz eta posible den gaurko erabakia hartzeko ez den, agian, formalki edo legalki behar. Baina beharrezkoa ikusten dugu txosten ekonomiko bat kontu-hartzailearen aldetik.

Hori da eskatzen duguna, txosten ekonomiko hau egitea Udaleko kontu-hartzailearen eskutik, eta hau egin bitartean gai hau mahai gainean uztea. Bestela ere, guk erregistrotik ere sartuko dugu eskaera hau, baina hori da guk eskatzen duguna puntu honetan.

Alkatea: Bale. Harritzen nauena da batzordean gaia eraman genuenean kontu-hartzailea bertan egon zen eta horrelako inolako eskaerarik egin ez izana. Honen atzean erabaki hau atzeratzearen helburua ikusten dut EAJren aldetik. Sozietate publiko batean beste Udal bat sartzeak sozietate horri nolabait ere sendotasuna eta indar gehiago ematen diolako zenbat eta bazkide gehiago eduki. Txosten ekonomikoa eskatzeko arazorik ez dago eta adieraziko diogu kontu-hartzaileari egin dezan; baina ez dugu erabakia atzeratuko. Uste baitugu, aitzakiazat erabiltzen dela txosten ekonomikoarena, benetan kezka hori balitz batzordean bertan eskatuko litzatekeelako. Eta batzordetik hona egunak pasa direlako eta inongo momentutan kezka hori azaldu ez duzelako. Gehiago ikusten dut nahi duzuela plenoan Garbitaniaren inguruko horrelako... beste behin ere adierazi kezka edo txostena falta dela... Eta batzordean adierazi nizuen, Oiartzungo EAJk onartu du Garbitanian sartzea. Eta, aldiz, Hernaniko EAJk beti erabaki honen kontra hartuko du, nahiz eta txosten ekonomiko hori egon. Oiartzungo EAJk alde bozkatu du. Oiartzungo EAJk adostu du bertako gobernuarekin.

Eta zuek txostenaren kezka ez zenuten adierazi batzordean. Beraz, kezka ez dut uste txostenarena denik. Orduan, txostena eskatuko diogu kontu-hartzaileari eta ez atzeratzearen arrazoia da, uste dudalako estrategia bat dela eta bestetik, Oiartzungo Udala erabaki hauen zain dagoelako bazkide garen herrien pleno-erabakien zain dagoelako, beraien poligono-bilketa Garbitaniaren bitartez egiten hasi ahal izateko.

Zergatik da garrantzitsua? Eta hau beti esaten dugu: Garbitania delako enpresa bakarra poligono-bilketa hainbesterainoko gaikako sailkapena egiten duena. Ez dago beste enpresarik. Eta horregatik da inportantea lehenbailehen Oiartzun ere honetara batzea.

Hortaz, mahai gainean uzteko eskaerari ezezkoa. Txosten ekonomikoaren eskaera kontu-hartzaileari luzatuko diogu eta adieraziko diogu hori aipatzea.

Kontu-hartzailatzatik inongo momentutan ez zaigu eragozpenik jarri honek Hernaniko Udalaren aurrekontuak eta kontuak arriskuan jar ditzakeenik. Ulertzen dut ez dela beharrezkotzat jo txostenik edo behar zenik. Egingo da, baina erabakiarekin aurrera joango gara.

Mikel Gurutzeaga: Orduan txostena egiteko eskaera onartzen da. Eta Oiartzungo EAJk, guk dakigunez, ez du honen alde bozkatu inon ere. Nik dakidanez, ez da bozkarik egon honen alde.

Alkatea: Tira, posible da plenotik pasa ez izana oraindik. Ez dakit ze prozesutan pasa behar duten. Guk lehenago eta gero beraiek agian. Baina gobernuarekin egindako akordioan puntu bat hau zen eta hori publikoki Oiartzungo EAJk adierazi du.

Honekin bozkatzera pasako gara. Oiartzungo Udala Garbitanian sartu ahal izateko Hernaniko Udalak lehentasunez erosteko aukerari uko egitea eta estatutuen aldaketa egitearen aldeko botoak? EH Bildu udal taldearenak. Kontrako botoak? EAJ udal taldearenak. Eta abstentzioak? Euskal sozialistak eta Elkarrekin-Podemos udal taldeenak.

	Kopurua	Izen-abizenak
ALDE	11	<ol style="list-style-type: none"> 1. Xabier Lertxundi Asteasuinzarra. (EHBildu) 2. Itsaso Lekuona Legorburu.(EHBildu) 3. Patxi Ibarguren Etxeberria. (EHBildu) 4. Ainara Atorrasagasti Urizar.(EHBildu) 5. Aitor Lukas Solano. (EHBildu) 6. Asier Mingo Arruabarrena.(EHBildu) 7. Amaia Miner Canflanca.(EHBildu) 8. Aitor Huizi Izagirre.(EHBildu) 9. Urko Lazkoz Fernandes.(EHBildu) 10. Oier Agirresarobe Lizaso.(EHBildu) 11. Miren Kistiñe Rodriguez Polaina.(EHBildu)
KONTRA	6	<ol style="list-style-type: none"> 1. Andoni Amonarraiz Gómez. (EAJ-PNV) 2. José Antonio Cuesta Solé. (EAJ-PNV) 3. Blanca Alberro Aranzasti. (EAJ-PNV) 4. Miryam Vazquez Vecino. (EAJ-PNV) 5. Mikel Gurutzeaga Zubillaga. (EAJ-PNV) 6. Ismael Ganchegui Gonzalez. (EAJ-PNV)
ABSTENTZIOAK	4	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ricardo Crespo Rubio. (PSE-EE) 2. María Jesús Ruiz Ochoa (PSE-EE) 3. Jaione Aristregui Cao. (EP-OH) 4. Lurdes López Gorrotxategi. (EP-OH)

Honekin, onartutzat ematen da.

OSOKO BILKURAK HARTUTAKO ERABAKIA

2024ko urriaren 20an, Astigarraga, Hernani eta Usurbilgo udalek esparru-hitzarmen bat sinatu zuten, Garbitania Zero Zabor Sozietate Mugatuari kide diren udalek egin beharreko jarduera-enkarguen araubide juridikoa arautzeko.

Oiartzungo Udalak formalki adierazi du hitzarmen horri atxikitzeko eta Garbitania Zero Zabor Sozietate Mugatua enpresa publikoan bazkide berri gisa parte hartzeko asmoa duela, gainerako udalen baldintza berberetan (hemendik aurrera, eta laburtze aldera, Garbitania Zero Zabor SM legez aipatuko dugu sozietate publikoa).

Hitzarmenaren alderdiek komenigarritzat jotzen dute atxikipen-gehigarri baten bidez formalizatzea txertatze hori, zeinak jatorrizko hitzarmena aldatzen eta osatzen duen. Oiartzungo

Udalak Garbitania Zero Zabor Sozietate Mugatuan sartzeko egin zuen eskaera ofiziala dela eta, eta beharrezkoak izan diren aholku juridiko eta azterketak egin ostean, honako hauek zehaztu dira, eta aintzat hartu da Antolaketa eta Ogasun Batzordeak 2026ko urtarrilaren 15eko ohiko bilera gehiengoz emandako irizpena.

Horiek horrela, Hernaniko Udaltzak erabaki hauek hartu ditu, gehiengoz:

Lehenengoa. Oiartzungo Udalak egindako eskaria ontzat hartzea.

Bigarrena. Oiartzungo Udalaren sarrera burutzeko honako baldintza ekonomiko hauetan egitea:

• 130.000 euroko 62 partizipazio berriko kapital handitzea egitea. Kapital soziala 563.000 eurotan geratuko da eta jaulkipen-prima 68.000,00 euro izango da.

• Handitze hori partizipazio berriak sortuta egingo da. Partizipazio berri horiek guztiak Oiartzungo Udalarenak izango dira (IFZ: P2006800C). Honela zenbakituak izango dira: 502.etik 563.era (biak barne).

• Arrazoizko balioari jarraikiz, partizipazio guztiengatik Oiartzunek eman beharreko ordaina ehun eta hogeita hamar mila euro izango da (130.000,00 euro).

• Arestian aipaturiko 130.000,00 euroko balioaren ordainketa eskudirutan egingo da (Garbitania Zero Zabor SMk zehaztuko duen kontu korrontera transferentzia eginez). Honela:

Eskudirutan:

• Ehun eta hogeita hamar mila euro (130.000,00 euro).

Hirugarrena. Operazioa burutzen denean estatutuetako 1. eta 5. artikuluen erredakzioaren aldaketak egingo dira. Testu berrietan hauek jasoko dira:

«1. artikulua.- Garbitania Zero Zabor SM izeneko erantzukizun mugatuko merkataritza sozietatea eratu da eta sozietate hori arautuko dute Estatutu hauek Erantzukizun Mugatuko Sozietateei buruzko Legeak eta gainerako lege xedapen osagarriek.

Sektore Publikoko kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 3.1. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Usurbilek, Hernanik, Astigarragak eta Oiartzunek erakundearen kapital sozialean partaidetza dutenez, sozietate sektore publikoaren barruan egongo da eta aipaturiko legea aplikatuko zaio. Horiek horrela, erakundeak Hernaniko, Usurbilgo, Astigarragako eta Oiartzungo Udalen bitarteko propio eta zerbitzu tekniko izaera izango du».

«5. artikulua.- Kapital soziala BOSTEHUN ETA HIRUROGEITA HIRU MILA EUROTAN (563.000 €) finkatuta geratuko da, 563 partizipazio sozialean zatitu eta ordezkatuta (563), bakoitza mila euroko balore nominala izango du (1.000 €), metagarriak eta zatiezinak, korrelatiboki zenbakituak batetik (1) hasita bostehun eta hirurogei hiru (563) arte, biak barne, guztiz izenpetu eta ordainduak. Balore nominala baliozko mila eurokoa (1.000,00 €) izango da eta erreala, berriz, bi mila eta laurogeita hiru euro koma berrogetita hamazortzi zentimo (2.083,58 €)».

Laugarrena. Sozio bakoitzari legozkiokeen honako zenbaki eta kopuru hauek adostu direlarik:

- Hernaniko Udala: IFZ P2004300F, 1.tik 250.era, biak barne.*
- Usurbilgo Udala: IFZ P2007800B, 273.etik 402.era, biak barne.*
- Astigarragako Udala: IFZ P2009400I, 251.etik 272.era eta 403.etik 501.ra laurak barne.*
- Oiartzungo Udala: IFZ P2006800C, 502.etik 563.era biak barne.*

Bosgarrena. Beraz, sozioen partizipazioen zenbakiko kopuruak eta sozietatearen gaineko portzentajea honela geratuko dira:

• Hernaniko Udala: IFZ P2004300F, 1.tik 250.era, biak barne. (Sozietatearen % 44,41). (Balio nominala 250.000,00 euro, balio erreala 520.896,60 euro).

• Usurbilgo Udala: IFZ P2007800B, 273.etik 402.era biak barne. (Sozietatearen % 23,09). (Balio nominala 130.000,00 euro, balio erreala 270.866,23 euro).

• Astigarragako Udala: IFZ P2009400I, 251.etik 272.era eta 403.etik 501.ra biak barne. (Sozietatearen % 21,49). (Balio nominala 121.000,00 euro, balio erreala 252.113,96 euro).

• Oiartzungo Udala: IFZ P2006800C, 502.etik 563.era biak barne (Sozietatearen % 11,01). (Balio nominala 62.000,00 euro, balio erreala 129.182,36 euro).

6. GALDERA ETA ESKARIAK

Alkatea: Eta, beste gairik ez daukagunez, zuzenean galdera eta eskaeretara pasako gara. Hau da gaurko azken puntua. Ez dakit udal talde politikoetatik badagoen galdera edo eskaerarik? ez. Herritarren partetik bai.

Xabier (herritarra, publikotik): Arratsalde on.

Terrazen ordenantzaren gainean galdera egin nahi nuke. Hamar hilabete badira onartu zela ordenantza hori eta 28. artikuluan aipatzen du ikuskapenak egingo direla, edo egiten direla, edo egin behar direla. Eta ea egiten diren, galdera. Ez dakit bai edo ez erantzungo didazuen... Artikulu desberdinetan markatzen da, adibidez, 19.ean, mahai guztietan hauts-ontziak egotea bermatuko dela. Gehienetan, denetan ez esateagatik, ez da bermatzen. Garbiketa egin behar litzatekeela egunero gauean... Eta beno, nik ikusten dudanagatik, gehienek... tira, batzuk ez dute egiten, beste batzuk langilearen arabera garbiketa kale erdira egiten dute, langilearen arabera biltzen dute... mahai kopuru batzuk markatuta daude atarietan jarritako paneletan, bada bakarren bat mahai gehiago dituen eta traba egiten diena bizilagunei etab.

Eta pixka bat ea ikuskapen hori egiten den edo ez.

Alkatea: Eskerrik asko, Xabier. Ainarak erantzungo dizu.

Ainara Atorrasagasti: Kaixo, Xabier, eskerrrik asko.

Bai, egiten dira, baina egia da ez dela lehen aldia zurea moduko zalantza edo kezka agertzen dena. Indartuko dugu ikuskapena eta hauts-ontziena, garbiketarena, hori jasotzen da ordenantzan; beraz, bai jasotzeko orduak, ordutegiak, mahai kopuruak, panelak non agertzen diren garbiketak... eskatuko dugu indartzeko.

Jasota gelditzen da, eskerrrik asko.

Alkatea: Ados. Honekin, beste galderarik edo eskaerarik ez badago, bukatutzat emango dugu gaurko plenoa.

Eskerrik asko, denoi.

Hernanin 2026ko urtarrilaren 27an

Idatziz gera dadin eta ondorioak izan ditzan egin dut ziurtagiri hau, alkatearen aginduz eta bere oniritziarekin

Ontzat emana

*Xabier Lertxundi Asteasuinzarra
Hernaniko Alkatea*

Sinatua

*Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa
Hernaniko Bitarteko Idazkaria*

*Ziurtagiri hau elektronikoki sinatuta dago: osotasuna eta egiazkotasuna,
QR kodearen bidez edo azpiko egoitza elektronikoa bidez egiazta dezakezu.*

